



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilak 26**

**Vitoria-Gasteiz, 26 de abril de 2016**

## Lehendakaritza

### **LARRIALDIETARAKO ETA EKINTZA HUMANITARIETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTU DUTE, 3,2 MILIOI EUROKOA**

Gobernu Kontseiluak garapenerako lankidetzaren kargurako larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako diru-laguntzen deialdia onartu du gaur, guztira, 3,2 milioi euroko zenbatekoa izango duena.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez kudeatuko diren laguntzen helburua da krisialdi humanitarioak bizi dituzten pertsonen bizitza salbatzeko eta sufrimendua arintzeko ahaleginean laguntzea, betiere giza duintasunari, giza eskubideei eta printzipio humanitarioei dagozkien prebentzioko eta babeseko alderdiak barnean hartuta.

Gaur onartu duten deialdiak bi erro hauek izango ditu:

**1.-** Finantzazio iraunkorreko lerroa, urte osoan irekita egongo dena eta 1,2 milioi euroko zuzkidura izango duena. Lerro horrek bilduko ditu hondamendiek edo krisialdiek eragindako pertsonak erreskatatzeko larrialdi-proiektuak eta arropak, edateko ura, elikagaiak eta osasun-laguntza emateko proiektuak. Halaber, hondamendiei aurre egiteko eta hondamendiak prebenitzeko ekintza humanitarioko proiektuak, hondamendien ondorioak arintzeko eta leheneratzeko proiektuak eta bakea ezartzeko eta giza eskubideak eta Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa babesteko proiektuak ere hartuko ditu barne.

**2.-** Ekintza humanitarioko estrategia markoen lerroa, lehia-prozeduraren bidez esleituko dena eta 2 milioi euroko zuzkidura izango duena. Estrategia markoen bitartez, laguntza humanitarioaren arloko erakunde espezializatuek ahaztutako krisietan lagundu beharko dute. Iraupen luzeagoko eta aurrekontu handiagoko ekintzak gauzatzeko helburua du, estaldura txikiagoa duten krisialdien ondorioak jasaten dituztenak laguntzeko –hedadura zabalagoko eta inpaktu handiagoko erantzuna behar baitute–.

Kasu bietan, diru-laguntzen hartzailleak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lankidetz-eragileak izango dira. Diru-laguntzen deialdia maiatzeko lehen astean argitaratuko duten EHAA-n.

Herri Administrazioa eta Justizia

**JAURLARITZAK DOAKO JUSTIZIARAKO SARBIDEA ERRAZTUKO DIO  
EGOERA BEREZIKI AHULEAN DAUDEN 25.000 PERTSONARI 2016  
URTEAN**

- Horietatik 3.000 inguru indarkeria matxista jasan duten emakumeak dira. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkarteetako 15 profesionalak haiei arreta emateko txanda espezializatu batean lan egiten dute.
- Gainera, 5.000 lege-laguntza emango dira Zaballa-Langraiz Oka, Martutene eta Basauriko espetxeetan.

Eusko Jaurlaritzak 14,5 milioi euro inbertituko ditu 2016an, egoera berezi ahulean dauden pertsonak Euskadiko Justizia Administrazioarako sarbide oso eta doakoa izan dezaten. Jaurlaritzak dagoeneko 10.897.745 euroko lehen gastua baimendu du, Euskadiko Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoak finantzatzeko. Honela banatuko da:

**BANAKETA TAULA**

	<b>GUZTIRA</b>
<b>Arabako Abokatuen Elkarte</b>	<b>1.905.186,54 €</b>
<b>Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa</b>	<b>3.211.300,61 €</b>
<b>Bizkaiko Abokatuen Bazkuna</b>	<b>5.257.087,20 €</b>
<b>Arabako Prokuradoreen Elkargoa</b>	<b>103.447,55 €</b>
<b>Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargoa</b>	<b>127.906,14 €</b>
<b>Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoa</b>	<b>292.816,96 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.897.745,00 €</b>

Hiru lurralde historikoetako abokatuen eta prokuradoreen elkargo profesionalak ofizioko zein guardiako ondoko zerbitzu hauetan egiten dituzten jarduera guztiak finantzatzera bideratuko da aurten ere diru hori:

- **Baliabide ekonomikorik ez duten** eta ondorioz Doako Justizia jasotzeko eskubidea duten inputatu, atxilotu eta espetxeratu guztiei zuzenbide-arreta ematekoak.
- Arauetan jasotako arrazoi bereziengatik (hala nola genero-indarkeria, sexu-erasoak, etxe barruko indarkeria, terrorismoaren biktimak, adingabeak, atzerritartasuna, tratu txar edo abusuaren biktima izan diren ezgaitu psikikoak...) **babes bereziko talde** bateko kide diren eta ondorioz automatikoki *Doako Justizia* jasotzeko eskubidea duten inputatu, atxilotu eta espetxeratu guztiei laguntza juridikoa ematekoak.

- **Orientazio Juridikoko Zerbitzuen** (OJZ) funtzionamendu-gastuak finantzatzekoak; izan ere, zerbitzu horiek doako aholkularitza eta orientazioa eskaintzen dituzte, prozesu judizialaren aurretik, Euskadiko espetxe eta justizia-jauregietan.

## **2016KO JARDUEREN PLANGINTZA**

2016rako zenbatespenak:

- Jaurlaritzak, gutxi gora behera, 25.000 pertsonari eskainiko dio Doako Laguntza Juridikoa.
- Horietatik 3.000 inuguru genero-indarkeria edo sexu-erasoak jasandako emakumeak izango dira. Abokatuen elkargoek 8 profesional titular eta errefortzuko 7, behar denean, bideratuko dituzte txanda horretara: 4 titular eta errefortzuko 3 Bizkaian; 3 titular eta errefortzuko 2 Gipuzkoan; eta titular 1 eta errefortzuko 2 Araban.
- Gainera, beste 5.000 lege-laguntza gauzatuko ditu Euskadiko espetxeetan. Hala, Arabako Abokatuen Elkarteak eguneko bi orduz egoten da astelehenetik ostiralera bitartean Zaballa-Langraiz Oka espetxean; Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa astearte eta ostiraletan Martutenekoan; eta Bizkaiko Abokatuen Bazkunak, berriz, eguneko bi orduz ematen die arretoa astelehenetik ostiralera bitartean Basaurin espetxeratuei.

## Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

### MERKATARITZAKO BULEGO TEKNIKOAK IZEN ETA IRUDI BERRIAK IZANGO DITU

Merkataritzaren Dinamizaziorako Bulegoak, garai batean Merkataritzako Aholkularitza Teknikoko Kabineteak zirenak, aurrerantzean, Merkataritzako Bulego Tekniko deituko dira.

Izena aldatzeak irudia ere berritzea eskatzen du, identitate-xedeetarako, eta saltokiek bulegoon zerbitzuak eskuratzen jarraitzeko.

Gobernu-kontseiluak gaur onartu du merkataritza-banaketaren sektoreari aholku ematen dioten eta administrazioaren politiken transmisioan lan handia egiten duten bulego horiek identifikatuko dituen irudi korporatiboa.

Marka berri hori bulego horietako teknikariek erabiliko duten materialean agertuko da, baita bulegoek beren jarduera-esparruan gauzatutako ekintzei loturiko euskarri guztietan ere. Kasu guztietan beteko dira Eusko Jaurlaritzaren gainerako marka ofizialekin bat etortzeko arauak, Jaurlaritzaren identitate korporatiboaren eskuliburuan ezarritakoaren arabera.

Gaur egun, 33 Merkataritza Bulego Tekniko daude Euskadin (15 Bizkaian, 14 Gipuzkoan eta 4 Araban), laguntza-programen garapenean lan handia egiten dutenak. Sortu zirenetik bertatik izan dute marka identifikatzaile bat, eta orain berritu egingo da, saltokiei merkataritzaren dinamizazioan bakarrik ez, esparru guztietan ematen dielako laguntza.



**Merkataritzako  
Bulego Teknikoak**  
**Oficinas Técnicas  
de Comercio**



**Merkataritzako  
Bulego Teknikoak**  
**Oficinas Técnicas  
de Comercio**

## Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

### 552,28 MILIOI IKASTETXE PRIBATUEN HEZKUNTZA-ITUNAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen 2016-2017 ikasturteko hezkuntza-itunak gauzatu ahal izateko gastu aurreikuspena.

Gastu aurreikuspen hau, 552. 281.566,64 eurokoa, 2015-2016 ikasturte honi dagokion kopuru berberekoa da, egun itunduta dagoen talde kopurua aintzat hartuta egin baita. Aurreko ikasturteetan egin izan denaz ez beste, 2016-2017 ikasturterako gastua onartzea aldi bakarrean egin da aurten, ikasturte osorako. Aurreko ikasturteetan, aldiz, bi alditan egin izan da: iraila-abendua tarterako lehena, eta urtarrila-abuztua tarterako bigarrena, urte naturalak aintzat hartuz.

Era berean, Gobernu Kontseiluak ondorengo ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzen dituen Agindua ere onartu du: 2016-2017tik 2021-2022ra arteko ikasturteetarako. Aurreko itun-aldia, 2012-2013 ikasturtean abiatu zena ordezkatzen du honek.

Hezkuntza-itunak berritu edo izenpetzeko eskaera egin ahal izango dute, Euskadin honako ikasketak hauek eskaintzeko baimenduta dauden ikastetxe pribatuek: Haur Hezkuntza (bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Era berean, Hezkuntza Bereziko gela egonkorak eta zereginen ikasketarako gelak ere ituntzen dira.

Hezkuntza-itunen bidez, ikastetxe pribatuetako irakaskuntza-jardueratik eratortzen diren gastuak finantzatzen dira, aurrez aipaturiko etapa horietan. Ikastetxean matrikulaturiko ikasle kopuruaren eta osaturiko taldeen arabera kalkulatu den diru-kopuru hori, pertsonal gastuetara (izan irakasle edo ez irakasle), nahiz ikastetxeen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuetara bideratzen da.

2015-2016 ikasturte honetan 294 itunpeko ikastetxe daude Euskadin: 32 Araban, 150 Bizkaian eta 112 Gipuzkoan. Orotara, 7.495 itunpeko gela batzen dituzte guztien artean, unibertsitatez kanpoko hezkuntza maila guztietakoak.

Euskal Hezkuntza Sistemaren ezaugarri nagusienetakoa da sare publiko eta itunpekoaren arteko oreka, eta beraz, ikasleak kopuru ia berdintsuetan banatzen dira sare batean zein bestean. Ikasturte honetan 365.000 ikasle pasatxo ari dira Euskadin unibertsitatez kanpoko ikasketak burutzen. Horietatik %51 ikastetxe publikoetan dabilta, eta gainerako %49 itunpekoetan.

## Segurtasuna

### GOBERNU KONTSEILUAK EUSKAL HERRIKO POLIZIARI BURUZKO LEGEAREN PROIEKTUA ONARTU DU

- **Berretsitako testua Eusko Legebiltzarrera helaraziko da, bertan eztabaidatu dadin.**

Polizia-eredu berria indartzea, polizia kidegoetan berdintasuna eta emakumeen presentzia bultzatzeko neurriak sustatzea eta Ertzaintzako lan-karrera hobetzea dira Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea aldatzeko legearen proiektuaren hiru ardatz nagusiak.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarren aldiz aldatzeko proiektuan, Segurtasun Saila gaur egun bultzatzen ari den polizia-ereduaren zenbait alderdi indartzeko eta etorkizunean eredia bera sendotzeko erreforma-multzo bat jorratzen da. Eredu horren oinarria herritarrei zerbitzu egitea eta kontu ematea da, baita polizia-zerbitzuak eskubide berberak dituzten gizonezkoz eta emakumezkoz osatutako gizarte ireki, plural eta elebidunarekin uztartzea ere.

Lehenengo helburuan, **polizia-eredua indartzeko** helburuan, sartzen diren neurrien artean, honako hauek daude: Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodea integratzea, polizia-jardunbide egokia bultzatzeko pizgarri positiboan sistema indartzea (dominak eta sariak ematea), gaur egungo diziplina-sistema aldatzea barne hartuta (zehapen-araubidea egokituko da, funtzionarioei berme handiagoak emateko), eta Euskal Herriko Poliziaren Jardunbide Egokien Batzordea sortzea, hau da, polizia-erakundearekiko autonomia funtzionala izango duen erakunde iraunkor hibrido bat, pertsona espezializatuz osatua, polizia-adituak barne. Batzordearen funtzioa honako hau izango da: Ertzaintzaren edo udaltzaingoan baitako jokabideak eta praktikak aztertzea, organo eskudunek eskatuta, herritarrek horien inguruko kexak badituzte edo herritarrek poliziarekiko duten konfiantzan eragina badute. Gainera, esku-hartze edo operatibo polizial baten testuinguruan norbait hiltzen bada edo larriki lesionatzen bada, gorabehera horiek ofizioz ikertuko ditu.

Legearen proiektuak, halaber, euskal poliziarako kideak aukeratzeko eta kidegoetara sartzeko prozesuekin lotutako alderdi batzuk hobetzen ditu eta orain arte erregelamendu batean jasota zeuden betekizunak lege formal baten mailako arau baten bidez arautzen ditu.

Horrez gain, onartutako testuan, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia hautaketa-organo iraunkor gisa jasota dago, eta era berean, toki-erakundeek eskatuz gero, udaltzaingoetan sartzeko hautaketa-prozedurak egiteko aukera ematen zaio, baita batzuk batera egitekoa ere.

Hobekuntzen bigarren ardatza, funtsean, emakumeak Ertzaintzan sartzeko eta lan-mailaz igotzeko **diskriminazio edo ekintza positiboko neurriak** abiaraztean datza, betiere Europako legedi eta jurisprudentziaren parametroen eta eskakizunen barruan, gaur egungo presentzia handitzeko helburuarekin.

Hala, adibidez, polizia-kidegoetako emakumeentzako lan-sustapeneko planak arautzen dira, kidegoetara sartzeko eta lan-karrerarako aukera-berdintasuna bermaturik izan dezaten, dagokiena baino ordezkaritza urriagoa izatea zuzentzeko eta poliziaren eraginkortasuna handitzeko.

Nabarmentzekoak dira, berriak direla-eta, txanda libreko hautaketa-prozeduretan ezarriko diren emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak. Horien ondorioz, zenbait egoeratan emakumezko hautagaia gizonezkoaren gainetik hobetsiko da, Europako Erkidegoko jurisprudentziak lege-aurreikuspenei, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari dagokienez exijitzen dituen parametroen kontra jo gabe.

Azkenik, erreformen hirugarren ardatzaren barruan, **Ertzaintzako lan-karrera horizontalaren arauketa** sartzen da. Horrek esan nahi du kategoria bakoitzean aurreikusitako lan-garapen mailetara finkatutako urteetan eta eskatutako lan-gaitasunak egiaztatuta igarotzeko ezagutza-mekanismo bat ezarriko dela.

Barne-sustapenaren arloan, karrera administratiboaren alde egingo da, kategoriaz igotzeko zerbitzu-urteen kopurua txikituz. Beste alde batetik, barne-sustapen prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga ezabatu egin da eta seme-alaben edo senideen zaintzagatik, genero-indarkeriagatik edo zerbitzu bereziengatik eszedentzian dauden pertsonak barne-sustapen prozesuetara aurkeztea onartuko da. Horrez gain, ezagutza bereziak eskatzen dituzten Ertzaintzako espezialitateen araubidea arautu da eta gutxieneko eta gehieneko iraupena izango dute.

Superintendente-kategoria kenduko denez, Ertzaintzako erantzukizun handieneko postuak eskuratzeko eta betetzeko prozesua bizkortuko da, lanpostuak betetzeko prozedura arrunten bidez.

Egoera administratiboari dagokienez, gaur aurkeztutako proiektuan zerbitzu aktiboa arautzen da, adinaren arabera modelatuta; hau da, zerbitzu aktiboarekin jarraituko da, norbere egoerarako egokiak diren zereginak eginez. Bestalde, gutxiegitasun psikofisikoarekin lotutako bigarren jarduerako egoera administratiboa ere arautzen da.

Gizarte-babes eta -errekonozimenduko neurrien artean, lehenengo aldiz, dominak eta ohorezko sariak emateko erregimena jasotzen da legean, zerbitzu-ekintzan hildakoak edo erretiroa hartu dutenak ohoratzeko dagokien kategoria baino maila bat gorago igotzeko aukera barne hartuta.

Proiektuan, diziplina-araubidearen gaineko aldaketak ere jorratzen dira. Hala, behin eta berriz egindako sexu-jazarpenaren eta lan-jazarpenaren arloan falta oso astun berriak eta polizia-bideokameren erabilera-araubideari buruzko arau-hausteak sartzen dira.

Gaur onartutako testuan, zehapenen zerrenda modulatu da eta espedientepean dauden pertsonen bermeak indartu dira, deklarazioak ez egiteko, beren buruaren kontra ez egiteko, beren burua erruduntzat ez jotzeko eta errugabetasun-presuntzioa izateko eskubideei dagokionez, bai eta prozeduraren izapideen egoeraren berri izateko eskubideari dagokionez ere.



Udaltzaingoei dagokienez, indarrean dauden jardunbide batzuei erantzun juridikoa emateko askotariko neurriak aurreikusten dira proiektuan, esaterako: udaltzaingoak udalerritik kanpo jarduteko aukera, tokiko agintariak babesteko funtzioak gauza ditzaten. Halaber, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak antolatutako oinarrizko ikastaroak gainditu dituztenekin lan-poltsak osatu ahal izatea aurreikusten du, toki-korporazioen eskariei erantzuteko eta bitarteko funtzionarioek prestakuntza jaso ahal izateko.

Era berean, udaltzaingoen egitura profesionala aurreikusten da testuan; udaltzaingoa ez duten udalerrietarako, berriz, aguazilaren figura arautzen da, eta mugikortasun-agentearena, herrigunean zirkulazioa arautzeko.

## Segurtasuna

### **GOBERNU-KONTSEILUAK IBARRAKO UDALTZAINGOAREN SORRERA ONARTU DU**

Gobernu-kontseiluak, gaur bilduta, oniritzia eman dio Gipuzkoako Ibarra udalerrian Udaltzaingoa sortzeari. Zerbitzu hori 5.000 biztanle baino gutxiago dituen udalerrri horretan martxan jartzeko premia aldarrikatu du birritan Udalak, herritarrei zerbitzu hobea eskaini nahi dielako, besteak beste, bide-zirkulazioaren zaintzan edo ingurumeneko nahiz hirigintzako arau-hausteetan. Eusko Jaurlaritzak onarpena emateko, kontuan hartu du Segurtasun Sailak apirilaren hasieran emandako aldeko irizpena.

Pasa den martxoaren 17an, Ibarako (Gipuzkoa) udalbatzak aho batez erabaki zuen Eusko Jaurlaritzari herriko Udaltzaingoa sortzeko baimena eskatzea. Eskabidea, txosten teknikoa barne, bost egun geroago helarazi zion herriko alkateak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, eta horrek sorreraren aldeko txostena eman zuen apirilaren 7an.

Trafiko handia jasaten du Ibarrak, eta hori da bertako Udaltzaingoa sortzeko arrazoi nagusia herritarrentzat, Udalak egindako txostenak jasotakoaren arabera: «Trafiko-arloko eskumena berreskuratuta, beharrezkoa da hiriguneko trafikoa ordenatzea, seinaleztatzea eta bideratzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera». Lan horiez, oso premiazkoak direnak eskolen inguruetan, eta beste batzuez arduratuko da, tartean, hirigintzako edota ingurumeneko arauak betearazteaz, kontrolatzeaz eta, behar izanez gero, zehapen-espeditenteak abiarazteaz.

Horiek guztiak hartu zituen kontuan Segurtasun Sailak aldeko iritzia emateko, eta gauza bera egin du gaur gobernu-kontseiluak, Ibarako Udaltzaingoa sorrera baimentzeko.

## Osasuna

### **1.200 LANPOSTUKO 2016 LAN-ESKAINZA PUBLIKO BERRIA ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNA 625 LANPOSTUTAN MURRIZTEKO ESKAINZA TELEMATIKOA ONARTU DITU OSAKIDETZAK**

Osasuneko sailburu Jon Darpónek prentsaurrekoa eman du Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Josu Erkorekarekin batera gobernu-kontseiluaren bileraren ostean, Osakidetza administrazio-kontseiluak atzo onartutako erabaki nagusien berri emateko.

Organo horrek Mahai Sektorialaren azken bileran sindikatuei helarazitako proposamena berretsi du. Eskaintza horrek, sailburuaren hitzetan, “Eusko Jaurlaritzak enplegu publikoarekin hartutako konpromisoaren eta gizarte-elkarrizketarako duen borondatearen erakusle da”.

Lehenik, Osakidetza administrazio-kontseiluak 2016ko Lan-Eskaintza Publiko berria onartu zuen, eta datozen egunetan argitaratuko da EHAAn. Guztira, 1.200 lanpostu eskainiko dira. Nagusiki, 2014-2015 edizioko lan-eskaintza publikoan sartu ez ziren kategoriak edo lanpostu funtzionalak barne hartuko ditu, tartean, ospitale-mediku espezialistak, baina beste kategoria batzuetan ere eskainiko dira lanpostuak, erizaintzan kasu, langile askoko arloa denez.

Osasuneko sailburuak nabarmendu duenez, “Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak, birjarpen-tasak medio, jarritako lege-trabak saihestuz, Osakidetza, bere EPEen bitartez (2014-2015 EPE eta 2016 EPE), 2.214 lanpostu eskaini ditu, gainerako legegintzaldietan antzera.

Bere aburuz, 2016ko lan-eskaintza publikoan segurtasun juridikoa lehenetsi da, etete edo gorabehera ekiditeko. Oposaketa-fasea, berriz, ez da 2017a baino lehenago burutuko.

Enplegu egonkor eta kalitatezkoaren sustatzeko asmotan Osakidetza administrazio-kontseiluak hartutako beste erabaki baten berri eman du ere Osasun Sailburuak: 625 lanpostu huts betetzeko Eskaintza Telematika onartzearena, hain zuzen. Zehazki, erizainaren, klinika-laguntzailearen, administrari laguntzailearen, zeladorearen eta zerbitzu-beharginaren kategoriatan. Honek guztiak, bitarteko langileen kopurua handitzea ekarriko du, Osakidetzan behin-behinekotasuna murriztuz.

Eskaintza telematiko hau datorren maiatzean gauzatuko da, betiere kontratazio-zerrenden arabera, behin-behineko kontratuarekin ziharduten 625 pertsonentzako bitartekotasuna lortuz eta lanpostuak aldi berean betez.

## Ingurumena eta Lurralde Politika

### **GOBERNU-KONTSEILUAK HIRI-INFORMAZIOKO SISTEMA BAT GARATZEKO SUSTAPEN MINISTERIOAREKIN LANKIDETZA-HITZARMEN BAT SINATZEKO BAIMENA EMAN DU**

Eusko Jaurlaritzak Sustapen Ministerioarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko baimena eman du, planeamendu hirigileari buruko informazioa trukatzeko eta datu horiek informazio-sistema batean biltzeko.

2012an helburu berberetarako hiru urterako beste hitzarmen bat sinatu zuten, hau da, 2015eko apirilaren 10era arte. Horrenbestez, hitzarmen berria 2012koaren ia berdina da. Aldatu dira araudia aplikagarria (egun, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legea aplikatzen da), segimendu-batzordearen osaera (6 lagun izatetik 4 izatera) eta hitzarmenaren iraunaldia (3 urtetik 5 urtera).

Aurreko hitzarmenean bezala, bi erakundeek honako jarduera hauek gauzatu behar izango dituzte hitzarmenaren bidez: udaleko hirigintza-plangintzari buruz eskuragarri dagoen informazioa partekatzea eta parte hartzen duten erakundeek garatutako informazio-sistemetan erabiltzea, jatorrizko iturria aipatuz; elkarri informazioa ematea, programatzen diren eta bi alderdientzat interesgarriak izan daitezkeen topaketei, hitzaldiei, biltzarrei edo antzeko jardueri buruzko lankidetzeta-neurriak hartzeko, hala badagokio; eta hitzarmenean ezarritako proiektuetatik sortzen diren ekintzak eta esperientziak hedatzea.

## Presidencia

### **APROBADA LA CONVOCATORIA DE AYUDAS A EMERGENCIAS Y ACCIONES HUMANITARIAS POR UN TOTAL DE 3,2 MILLONES DE EUROS**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de ayudas a emergencias y acciones humanitarias con cargo a la cooperación para el desarrollo, que este año suman un total de 3,2 millones de euros.

Las ayudas serán gestionadas a través de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo y tienen por objeto contribuir al esfuerzo por salvar la vida y aliviar el sufrimiento de las personas afectadas por desastres y crisis humanitarias, incluyendo los aspectos de prevención y protección que hacen referencia a la dignidad humana, los derechos humanos y los principios humanitarios.

En concreto, la convocatoria hoy aprobada irá destinada a dos líneas de actuación:

**1.-** Línea de financiación permanente y, por lo tanto abierta durante todo el año, dotada con 1,2 millones de euros. Se incluyen en esta línea proyectos de emergencia para el rescate de personas afectadas por desastres o crisis y el suministro de abrigo, agua potable, alimentos y atención sanitaria. Se incluyen además, aquellos proyectos de acción humanitaria orientados a la preparación y prevención de desastres, mitigación y rehabilitación post-desastres y la construcción de la paz y la protección de los derechos humanos y el Derecho Internacional Humanitario.

**2.-** Línea de estrategias-marco de acción humanitaria, de concurrencia competitiva y dotada con 2 millones de euros. A través de las estrategias-marco, organizaciones especializadas en el ámbito humanitario atienden crisis olvidadas. Se trata de acciones de más larga duración y presupuesto que acompañan a poblaciones afectadas por crisis con menor cobertura y, por lo tanto, con necesidad de una respuesta de mayor envergadura e impacto.

En ambos casos, los receptores de estas ayudas son los agentes de cooperación radicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi. La convocatoria de las ayudas se publicará en el BOPV la primera semana de mayo.

## Administración Pública y Justicia

### EL GOBIERNO FACILITARÁ QUE 25.000 PERSONAS EN SITUACIÓN DE ESPECIAL VULNERABILIDAD ACCEDAN A LA JUSTICIA GRATUITA EN 2016

- De ellas, alrededor de 3.000 serán mujeres víctimas de la violencia machista que cuentan con un turno especializado de atención con 15 profesionales que ponen a disposición los Colegios de Abogados de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba.
- Además, se realizarán unas 5.000 asistencias legales gratuitas en los centros penitenciarios de Zaballa-Nanclares de Oca, Martutene y Basauri.

El Gobierno vasco invertirá 14,5 millones de euros en 2016 para que las personas en situación de especial vulnerabilidad tengan acceso, total y gratuito, a la Administración de Justicia en Euskadi. De ese importe, el Gobierno ha autorizado ya un primer gasto de 10.897.745 euros destinado para este fin a los Colegios de Abogados y Procuradores de Euskadi con el siguiente reparto:

#### TABLA DISTRIBUCIÓN

	TOTAL
Colegio de Abogados de Araba	1.905.186,54 €
Colegio de Abogados de Gipuzkoa	3.211.300,61 €
Colegio de Abogados de Bizkaia	5.257.087,20 €
Colegio de Procuradores de Araba	103.447,55 €
Colegio de Procuradores de Gipuzkoa	127.906,14 €
Colegio de Procuradores de Bizkaia	292.816,96 €
<b>TOTAL</b>	<b>10.897.745,00 €</b>

El Gobierno vasco financiará un año más todas las actuaciones, tanto de guardia como de oficio, que realizan los Colegios Profesionales de Abogados y Procuradores de los tres Territorios Históricos para:

- Atender jurídicamente a todas las personas imputadas, detenidas o presas **que carecen de recursos económicos** y que por tanto tienen derecho a *Justicia Gratuita*.
- Asistir jurídicamente a todas a todas las personas imputadas, detenidas o presas que pertenezcan a los **colectivos de especial protección** y que por tanto tienen reconocido automáticamente el derecho a *Justicia Gratuita*: violencia de género, agresiones sexuales, violencia en el seno del hogar, víctimas de terrorismo, menores de edad, extranjería, personas con discapacidad psíquica víctimas de abuso o maltrato...

- Financiar los gastos de funcionamiento de los **Servicios de Orientación Jurídica** (SOJ), que se prestan en las cárceles y en los palacios de justicia de Euskadi, y que se encargan de ofrecer asesoramiento y orientación gratuitos, previos al proceso judicial.

## PREVISIÓN DE ACTUACIONES EN 2016

Según los cálculos estimativos, en 2016:

- El Gobierno ofrecerá *Asistencia Jurídica Gratuita* a unas 25.000 personas.
- De ellas, alrededor de 3.000 serán mujeres víctimas de la violencia de género o de agresiones sexuales. Los colegios de abogados ponen a disposición de este turno especial un total de 8 profesionales titulares y 7 de refuerzo en caso de necesidad: 4 titulares en Bizkaia y 3 de refuerzo; 3 titulares en Gipuzkoa y 2 de refuerzo; 1 titular y 2 de refuerzo en Araba.
- Realizará otras 5.000 asistencias legales en los centros penitenciarios de Euskadi. Así, el Colegio de Abogados de Araba acude dos horas al día, de lunes a viernes, a la cárcel de Zaballa-Nanclares de Oca, el Colegio de Abogados de Gipuzkoa acude los martes y viernes a la cárcel de Martutene y el Colegio de Abogados de Bizkaia atiende a las personas presas en Basauri dos horas al día de lunes a viernes.

## Desarrollo Económico y Competitividad

### **CAMBIO DE NOMBRE Y DE IMAGEN PARA ACTUALIZAR LAS OFICINAS TÉCNICAS DE COMERCIO**

Las Oficinas de Dinamización Comercial, antiguos Gabinetes de Asistencia Técnica al Comercio, cambian su nombre y pasan a llamarse ahora Oficinas Técnicas de Comercio.

Este cambio de denominación hace necesario contar con una nueva imagen que las siga identificando, y que permita a los comercios seguir accediendo a sus servicios.

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la nueva imagen corporativa que identificará a estas oficinas, que realizan una importante labor de transmisión de las políticas de la administración, asesorando al sector de la distribución comercial.

Esta nueva marca identificativa se plasmará en todo el material que utilicen los y las técnicos de estas oficinas, así como en aquellos otros soportes alusivos a acciones desarrolladas por ellas dentro de su ámbito de actuación. En todos los casos se respetarán las normas de convivencia con las marcas oficiales del Gobierno Vasco, según se establece en su manual de identidad corporativa.

En la actualidad existen 33 Oficinas Técnicas de Comercio en Euskadi, (15 en Bizkaia, 14 en Gipuzkoa y 4 en Araba), que realizan una importante labor como el desarrollo de programas de ayudas. Desde su inicio han contado con una imagen de marca identificativa, que ahora se renueva porque su trabajo no es solo de dinamización comercial, sino de apoyo técnico al Comercio en todo su ámbito.



**Merkataritzako  
Bulego Teknikoak**  
**Oficinas Técnicas  
de Comercio**





## Educación, Política Lingüística y Cultura

### **552,28 MILLONES PARA LA FINANCIACIÓN DE LOS CONCIERTOS EDUCATIVOS DE CENTROS DOCENTES**

El Consejo de Gobierno en su reunión de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, ha aprobado la previsión de gasto para la concertación educativa de centros privados de enseñanza no universitaria de Euskadi para el curso 2016-2017.

La previsión de gasto, con un importe de 552. 281.566,64 euros, supone la misma cuantía económica que este curso 2015-2016, ya que se ha realizado en base al número de grupos concertados existentes en el presente curso. A diferencia de lo que se venía haciendo en cursos anteriores, en los que la aprobación de gasto se realizaba en dos fases (una aprobación para el periodo septiembre-diciembre, y la segunda para enero-agosto, atendiendo a años naturales), la aprobación de gasto para el curso escolar 2016-2017 se realiza en una única fase para curso completo.

Así mismo, el Consejo de Gobierno ha aprobado la Orden que renueva los conciertos educativos para los próximos cursos escolares, comprendidos entre los cursos 2016-2017 y 2021-2022. Sustituye éste al anterior periodo de concertación que arrancó en el curso 2012-2013.

Podrán solicitar la suscripción o renovación de conciertos educativos los centros docentes privados autorizados para impartir las siguientes enseñanzas: Educación Infantil (segundo ciclo), Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional. De igual manera, se conciertan aulas estables de Educación Especial y aulas de aprendizaje de tareas.

Mediante los conciertos educativos se financia el gasto derivado de la enseñanza en centros privados en las etapas educativas anteriormente señaladas. La cuantía, calculada en función del alumnado matriculado y los grupos formados en cada centro, se destina a los gastos de personal, tanto docente como no docente, y el funcionamiento ordinario de los centros.

Durante este curso 2015-2016, 294 centros docentes de Euskadi cuentan con concertación: 32 en Araba, 150 en Bizkaia y 112 en Gipuzkoa. Entre todos suman un total de 7.495 grupos concertados, en todas las etapas de la educación no universitaria.

El alumnado del Sistema Educativo Vasco se distribuye de forma prácticamente equitativa entre las redes pública y concertada, siendo el

equilibrio de ambas redes una de las principales características de nuestro sistema. De los algo más de 365.000 alumnos y alumnas matriculados en la enseñanza no universitaria de Euskadi en el presente curso, cerca del 51% estudia en centros públicos, mientras que el 49% restante lo hace en centros concertados.

## Seguridad

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LA LEY DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO

- **El texto ratificado será remitido para su debate en el Parlamento Vasco**

Reforzar el nuevo modelo policial, la promoción de medidas igualitarias y de presencia de la mujeres en los cuerpos policiales y la mejora de la carrera profesional en la Ertzaintza son los tres ejes en los que basan las principales novedades del proyecto de ley de modificación de la Ley de Policía del País Vasco aprobada hoy en el Consejo de Gobierno.

El proyecto de quinta modificación de la Ley de Policía del País Vasco aborda un conjunto de reformas que buscan reforzar aspectos del modelo policial que el Departamento de Seguridad está impulsando en la actualidad y que el proyecto de ley consolida a futuro. Un modelo basado en la prestación de servicio a la ciudadanía a la que se debe rendir cuentas y la imbricación de los servicios policiales con una sociedad abierta, plural, bilingüe y constituida por hombres y mujeres iguales en derechos.

Entre las medidas encuadradas en el primer objetivo de **reforzar el modelo policial** figuran la integración del Código Europeo de Ética de la Policía, el reforzamiento del sistema de estímulos positivos del buen hacer policial (condecoraciones y distinciones), que incluye la modificación del actual sistema disciplinario (adecuando el régimen sancionador para ofrecer mayores garantías al funcionariado) y, también la creación de la Comisión de Buenas Prácticas de la Policía del País Vasco, un organismo híbrido de carácter permanente, con autonomía funcional respecto de la institución policial y compuesta por personas especializadas, incluyendo a expertos policiales. Las funciones de la comisión serán la de estudiar, a solicitud de los órganos competentes, cualquier conducta o práctica en el seno de la Ertzaintza o policía local sobre las que existan quejas e incidencia en la confianza ciudadana. Además, estudiará de oficio los incidentes en los que en el contexto de una intervención u operativo policial en la que se hubiera producido el fallecimiento o lesiones graves de una persona.

El proyecto de ley también mejora aspectos relacionados con los procesos de selección e ingreso en los cuerpos de policía vasca, regulando los requisitos que hasta la fecha se recogían en un reglamento, en una norma con rango de ley formal.

Además, en el texto aprobado la Academia Vasca de Policía y Emergencias se configura como órgano permanente de selección y se permite que, si así lo solicitan las entidades locales, pueda llevar a cabo procedimientos de selección para el ingreso en los Cuerpos de Policía Local, incluso realizando varios de ellos de forma conjunta.

El segundo eje de mejoras se centra, fundamentalmente, en la puesta en práctica de **medidas de discriminación o acción positiva** en favor de las mujeres para el ingreso y promoción en la Ertzaintza, siempre dentro de los parámetros y requisitos de la legislación y jurisprudencia europeas, para incrementar la presencia actual.

Así, por ejemplo, se regulan los planes de promoción de las mujeres en los cuerpos policiales para garantizar la igualdad de oportunidades en el ingreso y carrera profesional, corregir su infrarrepresentación e incrementar la eficacia policial.

Destacan, por novedosas, las medidas de acción positiva a favor de las mujeres en procedimientos selectivos por turno libre que implican la preferencia de la candidata mujer frente al hombre, en determinadas circunstancias, de un modo compatible con los parámetros exigibles en la jurisprudencias comunitaria europea de previsión legal, proporcionalidad y razonabilidad.

Por último, dentro del tercer eje de reformas se encuadra la **regulación de la carrera profesional horizontal en la Ertzaintza**, lo que implica la instauración de un mecanismo de reconocimiento que permite acceder a los diversos grados de desarrollo profesional previstos en cada categoría a lo largo de los años que se establezcan y mediante la acreditación de las competencias profesionales requeridas.

En materia de promoción interna, se favorece la carrera administrativa minorando el número de años de servicio para ascender de categoría. Por otro lado, se suprime el límite tres convocatorias para participar en los procedimientos de promoción interna, se admite la presentación en los procesos de promoción interna de quienes estén en excedencia por cuidado de hijos o familiares, excedencia por violencia de género o servicios especiales. También, se regula el régimen de las especialidades en la Ertzaintza para tareas con conocimientos específicos que tendrán una mínima y máxima permanencia.

Desaparece la categoría de superintendente, de modo que se agiliza el acceso y cobertura de los puestos de mando de mayor responsabilidad en la Ertzaintza por medio de los procedimientos ordinarios de provisión de puestos.

En lo que atañe a las situaciones administrativas, el proyecto presentado hoy regula el servicio activo modelado por la edad, consistente en la continuación del servicio activo realizando tareas apropiadas a su condición y también regula la situación administrativa de segunda actividad por insuficiencia psicofísica.

Entre las medidas de protección y reconocimiento social, se contempla por primera vez en la ley el régimen de concesión de condecoraciones y recompensas honoríficas, previendo la posibilidad del ascenso honorífico a la categoría inmediatamente superior a quienes hubieran fallecido en acto de servicio o jubilados.

El proyecto aborda también modificaciones del régimen disciplinario incorporando nuevas faltas muy graves en materia de acoso sexual y acoso

laboral reiterado, así como infracciones al régimen de utilización de videocámaras policiales.

En el texto aprobado hoy se modula el elenco de sanciones y se refuerzan las garantías de las personas expedientadas en cuanto a su derecho a no declarar, a no hacerlo contra sí misma, a no confesarse culpable y a la presunción de inocencias, así como a conocer el estado de tramitación del procedimiento.

En cuando a los cuerpos de policía local, el proyecto prevé medidas diversas que dan respuesta jurídica a prácticas existentes, como la posibilidad de que la policía local actúe fuera del término municipal para ejercer funciones de protección de autoridades locales. También prevé que la Academia Vasca de Policía y Emergencias pueda formar bolsas de trabajo con personas que hayan superado cursos básicos organizados por ella, para abastecer la demanda de las corporaciones locales y permitir la formación de funcionarias o funcionarios interinos.

De igual manera, el texto contempla la estructura profesional de los cuerpos de policía local al tiempo que regula la figura del alguacil, para municipios que no cuenten con cuerpo de policía local y la del agente de movilidad para regular la circulación en el casco urbano.

## Seguridad

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA CREACIÓN DE LA POLICÍA LOCAL DE IBARRA**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno en su reunión de hoy a la creación de la Policía local del municipio guipuzcoano de Ibarra. La puesta en marcha del nuevo cuerpo en este ayuntamiento de menos de 5.000 habitantes responde a la necesidad, proclamada por el Consistorio, de poder prestar un mejor servicio a su ciudadanía en cuestiones como la vigilancia del tráfico rodado o el control de las infracciones medioambientales y urbanísticas, entre otras. La aprobación otorgada hoy por el Ejecutivo vasco ha tenido en cuenta el informe favorable del Departamento de Seguridad, emitido a comienzos de abril.

El pasado 17 de marzo, la corporación municipal de Ibarra (Gipuzkoa) aprobó, por unanimidad, solicitar al Gobierno vasco la creación de un cuerpo de Policía local. La solicitud, acompañada de un informe técnico, fue trasladada cinco días más tarde por el Alcalde de la localidad al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, que emitió su informe favorable a la creación el cuerpo el 7 de abril.

La alta densidad de tráfico rodado que soporta el municipio de Ibarra es uno de los factores que mayor incidencia han tenido en el deseo local de disponer de un cuerpo propio de policía, tal y como se recoge en el informe elaborado por el Consistorio: “una vez recuperada la competencia de tráfico, resulta necesaria la ordenación, señalización y dirección del tráfico en el casco urbano, de acuerdo con lo establecido en las normas de circulación”. A dichas labores, especialmente necesarias en puntos sensibles como las proximidades de los centros escolares, se suman otras como el seguimiento, control y, en su caso, iniciación de expedientes sancionadores en materias como la disciplina urbanística, el medio ambiente, etc.

Todos estos factores fueron tenidos en cuenta en su momento por el Departamento de Seguridad para emitir su informe favorable, y hoy lo han sido igualmente por el Consejo de Gobierno para dar su autorización a la creación de la Policía local ibartarra.

## Salud

### **OSAKIDETZA APRUEBA LA NUEVA OPE 2016 CON 1.200 PLAZAS Y UNA OFERTA TELEMÁTICA PARA REDUCIR LA TEMPORALIDAD EN 625 PUESTOS DE TRABAJO**

El Consejero de Salud, Jon Darpón ha comparecido hoy junto al portavoz del Gobierno Vasco, Josu Erkoreka, en la rueda de prensa posterior al Consejo de Gobierno, donde ha informado de las principales resoluciones adoptadas ayer por el Consejo de Administración de Osakidetza.

Este órgano ratificó y aprobó la propuesta trasladada a los sindicatos en la última reunión de la Mesa Sectorial. Una oferta que, en palabras del Consejero, “ratifica el compromiso con el empleo público y la voluntad de diálogo social del Gobierno Vasco”.

En primer lugar, el Consejo de Administración de Osakidetza aprobó la nueva Oferta Pública de Empleo 2016, que se publicará en los próximos días en el BOPV, y que está dotada con 1.200 plazas. Se centrará principalmente en las categorías o puestos funcionales que no fueron objeto de convocatoria en la OPE 2014-2015, como médicos especialistas hospitalarios, aunque se contemplarán también categorías como la de enfermería dado su elevado número en la plantilla.

Según ha destacado el Consejero de Salud, “pese a las trabas legales impuestas por el Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas, por medio de las tasas de reposición de plazas, Osakidetza ha ofertado a través de sus OPEs ( OPE 2014-2015 y OPE 2016) 2.214 plazas, una cifra muy similar a la de cualquier otra legislatura”

Asimismo, ha señalado que en esta OPE 2016 se ha primado la seguridad jurídica para evitar suspensiones o incidencias y que la fase de oposiciones no se ejecutará antes de 2017.

Con el objetivo de favorecer el empleo estable y de calidad, el Consejero de Salud ha informado también de que el Consejo de Administración de Osakidetza ha aprobado una Oferta Telemática de 625 plazas vacantes para las categorías de enfermero/a, auxiliar de clínica, auxiliar administrativo, celador/a y operario de servicios que incrementarán el número de trabajadores interinos, disminuyendo la temporalidad en Osakidetza.

Esta Oferta Telemática que se ejecutará el próximo mes de mayo respetando escrupulosamente las listas de contratación, posibilitará que 625 personas que estaban con contratos temporales cuenten con una interinidad y que además se cubran esas plazas de forma simultánea.

## Medio Ambiente y Política Territorial

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA UN CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL MINISTERIO DE FOMENTO PARA EL DESARROLLO DEL SISTEMA DE INFORMACIÓN URBANA**

El Gobierno Vasco ha autorizado un convenio de colaboración con el Ministerio de Fomento que tiene por objeto general la colaboración institucional para el intercambio de información relacionada con el planeamiento urbanístico y la incorporación de esos datos en el sistema de información urbana.

El convenio a suscribir tiene como antecedente el aprobado en 2012, con una vigencia de 3 años, es decir, hasta el 10 de abril de 2015, por lo que el nuevo es prácticamente idéntico al de 2012, con las diferencias de que la actualización de la normativa de aplicación (actualmente es el Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo y Rehabilitación Urbana), la composición de la comisión de seguimiento (pasa de 6 a 4 personas) y la ampliación de la duración del convenio, que pasa de 3 a 5 años.

Al igual que en el anterior, las actuaciones que el convenio de colaboración persigue desarrollar por ambas administraciones son las siguientes: compartir la información sobre planeamiento urbanístico municipal disponible y utilizarla en los sistemas de información desarrollados por los organismos participantes, mencionando la fuente de procedencia; informarse mutuamente con el fin de, en su caso, realizar acciones de colaboración sobre encuentros, conferencias, congresos o actividades similares que se programen y puedan ser de interés para ambas partes, y divulgar las acciones y experiencias que se deriven de los proyectos establecidos en el convenio.